

egunekoa

Maribi Ugarteburu

(Udalbiltzaren Batzorde Eragileko bozeramailea)

Euskal Herrian aro berria eraikitzeko deiadarra

Indarrak metatzeko deia da hau, Euskal Herrira egoera berria ekartzeko oinarritzko akordioak lortzeko, euskaldun guztion eta Herri honen eskubideak bermatzen hasteko, Euskal Herriaren Hitza eraiki, erabakiguneak hitzartu eta lanari ekiteko deia.

Egungo testuingurua erabakigarria da, dudarik gabe. Gatazkaren izaera politikoa argi ikusirik, Euskal Herria funtsezko aldaketaren premian bizi da. Eta eztabaida pil-pilean dago: Europako prozesuari buruzkoa, estatu frantziarraren dezentralizazioaren auserak, gatazka gainditzeko proposamena eta Eskubideen Kartaren bidez Udalbiltzak kaleratutako ildoak, Ibarretxeren proposamena, Amejoramentuaren ikuspegi mugatua agerian...

Eta horrela, bada, funtsezko aldateak planteatzen ari dira: Euskal Herriaren aitortza eta aldaketa konstituzionala estatu frantziarrari, estatus politikoa berri bat EAE deritzon, Europan ahots propioaz aritzeko aldarrikapenak...

Alabaina, dinamika zatikatua da nagusi oraino: EAE, Ipar Euskal Herria... eremu administratiboen arabera dinamika eta inkomunikazio arazoak... Euskaldun askori begirale papera edota euskal joko politikotik at geratzea baino ez zaio eskaintzen sarritan.

Une historiko honek, ordea, Herri gisa aritzeko tresnak eskatzen ditu. Eztabaidak, akordioak, pausoak, Herri gisa artikulatzen joateko bideak. Euskal Herrian bizi garen guztion arteko berdintasun printzipioan oinarriturik, bazterketarik gabeko eztabaida eta erabakiguneak sortu beharrean gaude.

Euskal Herrian prozesu demokratikoa abiatzeko eta Euskal Herria bera subjektu erabakitzaile gisa osatzen has

TESTUINGURUA

Eztabaida pil-pilean dago: Europako prozesua, Eskubideen Karta, Ibarretxeren proposamena...

HERRI GISA JOKATUZ

Heldu da proposamenen arteko Eztabaida Nazionala artikulatzeko garaia, oinarritzko akordioak eraikiz

gaitezen, gatazka gainditzeko oinarriak eraikitzen has gaitezen...

Honek guztiak indar askoren arteko komunikazioa, sinergia eta elkarlana eskatzen du. Premiazkoa da.

Horretara dator dei xume hau. Udalbiltzak 2002an zehar saiakera sendoa egin du aipaturiko bide hori marrazteko tresna erabilgarriak hitzartu eta mahai gainean jartzen.

—*Euskal Herriaren demokrazia eta bakanerantzko bidean* dokumentuaren bidez egun irauten duen gatazka politikaren irtenbidea Euskal Herria zein euskal herritar ororen eskubide guztien ezagutzan oinarrituriko marko demokratikoa eraikitzean datzala adierazi genuen. Marko demokratiko horren definizioak Nazioarteko Zuzenbidean izan behar du bere oinarria. Eta garatu beharreko prozesu politikoa baten ondorioa izanik, Euskal Herriak, eta beraz bertako herritar guztiek, erreferendumaren bidez erabaki beharko dituzte marko hori aplikatzeko bideak.

—Eta *Euskal Herriaren Eskubideen Kar-*

ta, Udalbiltzaren proposamena plaza-ratu dugu horren haritik. Euskaldun guztion eta Euskal Herriaren beraren eskubideen definizioa eginez (beti ere Nazioarteko Zuzenbidea oinarri), eta eskubideok praktikara eramateko proposamenak luzatuz. Udalbiltzak eginko hau, esan bezala, proposamen bat da, eztabaida sozial baten abiapuntua izan nahi duena, gizartearen esku-hartzeaz marko demokratikoaren eduki politikoa definitzeko.

—Azkenik, 2002ko abenduan ospaturiko Herrien Eskubideen Nazioarteko Konferentzian, nazioarteko partaidetza zabalaren artean hitzartu zen Autodeterminazio Eskubidearen inguruko Adierazpena. Eta paperetik haratago, Adierazpen hau Europa eta mundu mailako foroetara eraman eta aktibatze lan-ildo zabaldu da.

Mahai gainean dauden tresnak dira. Beste hainbat ere hor daude. Heldu da proposamen ezberdinen arteko Eztabaida Nazionala artikulatzeko garaia. Oinarritzko akordioak eraikitzen hasteko ordua da, Euskal Herria osoko herritarrentzat demokrazia eta bake egoera erdiesten has gaitezen.

Bide luzea izango da, neketsua agian, oztupo betea seguru... Baina askoren artean egin beharreko bidea dela, hori da dakiguna. Udalbiltzak bere alea jartzea jarraitzeko konpromisoa agertu du eta gutuntxo hau ere konpromiso horren parte da.

Udal hautetsiei, Euskal Herri osoko gizarte eragileei eta herritarrei oro har luzatzen dizuegun elkarlanerako deiadarra da, guztion artean eraiki dezagun Bakea, eraiki dezagun Demokrazia Euskal Herrian. Bagara nor, elkar eta mintza gaitezen, ekin diezaigun lanari.

zutabea

Antton Azkargorta

Eta bitartean?

Azken egunotan egunkariak hostokatzen ari naizela, iruditzen zait PPren politika erantzunak ari dela jasotzen nonahi. Arrunki esaten den bezala, ipotxak hazten ari zaizkiola dirudi. Galizian sutan daude, eta partiduaren barruan bertan Fragaengandik urruntzeko borroka bizian dihardute. Halaber, Estatu-ko jurista ezagunenek Aznarrek legeriari eginiko aldaketak gogorki kritikatu dituzte. Areago, batzuek legeria «etsaiaren kontra» moldatzen ari dela diote, eta ez hiritarren zerbitzurako. Atal honetako azken kitenkeria: presoei, orain arte ipinitako hamaika oztupoak gutxi bailiran, ia-ia ikasten segitzea ere debekatu egingo diete.

Kanarietako Parlamentuko presidenteak, PP-koa bera, Garzoneren portaera deitoratu du, bere ustez erkidego autonomikoen askatasuna murrizten duelako. *Prestige* ontziaren orbanak egunero azaltzen dira albistegietan. Irakeko arazoa-ri buruz Aznarrek ahoa zabaltzen duen bakoitzean, jendearen haserre goraka jartzen du eta alde dituen hedabideak ere asaldatuta dabilta. Datu ekonomikoak baita, azkenik, nahiko oker datoz. Eta Aznar, inori kasurik egin gabe burubelarri doa, zuzen, azken porroteraino.

Bitartean, oposizioako partiduek, horrenbeste aldrebeskeria ikusita, eskuak igurztzen dituzte eurentzako etorkizun hobea datorrela sumatuz. Odon Elorza, Arzalluz eta Ramón Jauregi horizonteari begira ari dira jada, behin boterea esku-ratu ondorengo estrategia federalismoaren bidez prestatzen, hots, Ibarretxeren antzeko plana baina estatu-kontsentsutik hasita eta estatu osorako; hori izango omen baita Espainiak Euskal Herriarekin duen arazoa bideratzeko erabiliko duen azken baza.

Eta PP erori arte, zer? Begira egongo dira? Hala dirudi, kontuan izanda haren narriadura berez, inoren *laguntzarik* gabe gertatuko dela. PSOEek ongi daki politika antiterrorista delakoa aldatu egin behar dela, baina baita ere dinamika horrek PP desgastatzen duela eta akaso ezker abertzalea ere bai. Hala ere, itxarotea ez da oso politika zuhurra, ezen —askotan esan dudana bezalaxe— PPren gainbehera ez baita partidu baten porrot soilak, estatu-politika oso baten porrotaren azken atala baizik. Eta estatuaren desgasteak geroko alternatiben sinesgarritasunari ere kaltea ekarriko dio. Gauzak gaizki daudenean erabakiak hartu eta zuzendu egin behar dira, eta ez beti hauteskontzi salbatzaileen zain egon.

seiko urrea

Iñigo Aranbarri



Literatura

Beharbada inork gutxiak susmatu zuen tokitik dabil Marcosen iragan urrian Garzoni eginiko erronka publikoa. Serioan inork hartu ez zuelako, politikoa eta eragile sozialak isilik, ETak hartu zuen hitza, gehienek espero ez zuten bidetik. ETaren erantzunak Marcosen ekarri du. Orain, elkarrengandik urruntzen ari diren bapora bi dira.

Hitzak bereizten ditu, hizkuntzak, hizke-

rak, bi eskuak. Batena, trebetasunez irristatzen da; harro, umorez, jolas egiten du berbeekin, ideiekin, bihotzekin. Errealitatea nobela batean sarturik dago, eta publizitatea eragingarria da: «Gure aurpegiak ikus ditza-zuen jantzi ditugu kaputzak». Arrazoiak, sentimenduak eta olgeta, nahasirik datoz. Eta hor du irakurlea bereganatzen. Bestearena, baldarragoa da, hizkera karrakateka dabil, ahalegintzen da gutun-lagunaren jos-

teta ekartzen, arrazoiak, sentimenduak eta ekintzak batzen, baina lehengo idazkera garaitzen zaio, akituagoa, zaharragoa hagitzez. Eta irakurlea ez dator.

Ez da, noski, literatura ETA eta EZLN bereizten dituen. Pertsonak, jatorriak, egoera sozialak, historiak bereizten ditu. Helburuak. Eta ekintzak. Jardun militarrek bereizten ditu. Ez da idazkera hutsagatik erortzen irakurlea idazlearen sareetan. Baina hitza arma baino beharrezkoago du ETA bezalako erakunde batek. Areago ia ezer ez denean berdin. Lehen, hildako bat ez zen ETak hila honek esan arte. Albistegietan errespatazen zen araua zen. Haren jardunaren kontra ziren politikoa entzuten ziren, esaka, «hiltzaileak dira, baina fio naiz haien hitzean». ETaren hitza, topikoen gailur legez aurkez-

ten dugun euskaldunarena bezala, aitortzen zen hitza zen.

Gauzak asko aldatu dira, ordea. Dagoneko ez dago horrela mintzo den politikorik, logika politikoa-militarra ere, aldatu egin dira, eta hitzak lur asko galdu. Ez ETak, inork ezin dio Marcosi neurri bereko gutunik idatzi. Ez hizkuntzagatik (badago hemen erdara ederra darabilenik), hizkeragatik baino. Nola esango nuke, Euskal Herrian, ur berri ezean, erre bagenu bezala dauka-gulako.

Arian-arian, bada sendotzen den berbarik, eta bada ihartzen eta galtzen denik. Politikan erabiltzen dena da bat. Eta hemen, orain, hitzak erreta daude. Sinistu beharko da badagoela buelta ematerik eta, berrituta, hitzekin ilusioa sortzerik. Lehen egin zen.